



26

MUSM

Anna Michels

desclée

26
MUSU

Anna Michels

desclée

Jatorrizko izenburua:

26 kisses

SIMON PULSE

Simon & Schuster argitaletxeko haurrentzako argitalpenen sailak argitaratua

Amerikako etorbidea, New York. 10020, New York.

Published by arrangement with Simon Pulse,

An imprint of Simon & Schuster Children's Publishing Division

Text copyright © 2016 by Simon & Schuster, Inc

Testuaren egile eskubideak © 2016 Simon & Schuster, Inc.

Azaleko irudiaren egile eskubideak © 2016 Studio 504/Getty Images

Basque language copyright © 2018 by Desclée De Brouwer S.A.

Original English language edition copyright © 26 Kisses

Itzulpena © 2018 Ainhoa Hualde Caballero

© 2018, DESCLÉE DE BROUWER, S.A.

Henao, 6 - Bilbao

Tlf.: 94 423 30 45

www.desclee.eus

info@edesclee.com

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik,
obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa,
aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada.
Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke
(Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak).
CEDRO erakundeak babesten ditu aipatu eskubide horiek.

ISBN: 978-84-330-3018-4

Legezko gordailua: BI-1768-2018

Inprimatzailea: Gómez Aparicio Artes Gráficas

LEHEN ATALA

Seth-ek ni maite ninduen lehendabizi.

Eta agian oker nenbilen, baina uste nuen, benetan uste ere, barrenbarrean beste inor baino gehiago maiteko ninduela beti. Baita beste norbaitekin geratzen hasten baldin banintzen ere; baita eskola eta bizitza eta beste lagun batzuk tartean baldin bazeuden ere. Banekien, gure artean gertatutako guztiagatik, pertsonarik garrantzitsuena izango nintzela beti harentzat. Baina orain, Duna Egunetako desfilea ikusteko asmoz kalean bildu den jendetza saihestu nahian gabiltzala, konturatu naiz Melindari begira ari zaiola niri lehen begiratzen zidan moduan. Begirada hori, non begiak gozatzen zaizkion eta masailezurra erlaxatu; non barnean izan ohi duen eta malguki batek bezala aurrera bultzatzen duen tentsioa, beti hurrengo kontura edo hurrengo abenturara bultzatzen duena, sinpleki... desagertzen den. Begirada hori hain indartsua zen, non harengandik aldendu eta buelta erdi eman behar izaten bainuen. Orain Melindari begiratzen dio horrela, eta, Sethengatik poztu beharrean, pentsa dezakedan bakarra zera da: *kaka zaharra*. Izan ere, zer egingo dut nik nire bi lagunik onenak elkarrekin hasten baldin badira?

Seth berehalaxe etorri da bere onera, eta hozkada handi-handi bat eman dio bere txurroari, azukre hautsezko hodei bat zabalduz airean.

—Goazen –esan du sorbaldaren gainetik, eta desfilea ikusteko zain kalean dagoen jendearen tartean sartu da, pertsona gehien pilatuta dauden tokian. Markako arropa beltzez jantzita, Seth nabarmen da kolore biziko kamiseta eta txanoak daramatzaten turisten artean–. Hemendik ezin izango dugu ezer ikusi.

Jende artean goazela, Melek hatz bat kakotu du nire praktetan, gerrikoari eusteko dauden lokarrietako batean, eta nik harengandik askatzeko eta kaosean desagertzeko beharrari eutsi diot. Orduan, alabaina, Sethek eskumuturretik heldu dit, eta hirurok espaloiko koskan eserita bukatu dugu, ondoz ondo, karrozetatik bota dezaketen edozer opari hartzeko tokirik onenean.

—Nahi al dun? –Sethek erdi janda duen txurroa eskaini dio Meli, baina Melek ezezkoa egin du buruaz, eta, nazka aurpegia jarriz, beste aldera begira jarri da.

—Azukre gehiegi –esan du, esku bat bere ile beltz eta motzetik pasa duen bitartean, hatzekin kizkurrak nahastuz.

—Duna Egunak ditun –esan dut nik–. A zer martxa, ezin txurro bat edo izozki bat hartzea; bizitzak emandako plazer txiki horiengatik ez balitz... –Saiatu naiz ahotsean igar ez zaitzadala gogaituta nagoela, ez baita nire arazoa Melek berriki erabaki baldin badu azukrea, funtsean, pozoia dela.

Melek sorbaldak altxatu ditu, eta, ondoren, bizkarra atzera bota du, eskuen gainean bermatuz eta hankak kalera luzatuz, halako moduz non solte daramatzen Converse zapaten lokarriek hautsa ukitu duten.

Sethen begirada harrapatzen saiatu naiz Melen buruaren gainetik. Baina, oraingoan ere, Meli begira ari zaio begirada horrekin, eta ez dit jaramonik egin. Orduan, gure atzean dagoen norbaitek belauna bizkarran sartu dit, eta min keinua egin dut.

—Nahi al dun bruselaza erreak ekartzea jaki organikoen kamionetatik? –galdetu dio Sethek Meli, ahots apalez eta maitekiro—. Edo nahiago al dun gari zukua? Aza entsalada bat? Alegia, desfilea ikusteko egokia den zerbait.

Melek irri egin du eta sorbaldaz ukitu txiki bat eman dio Sethi. –Hago isilik –esan dio, eta gerturatu zaio, behar-beharrezkoa dena baino zertxobait denbora gehiagoz.

Barkillozko kukurutxoaren azken mokadua ahoan sartu dut, eta hizpide izan dezakegun gai berri bati buruz pentsatzen saiatu naiz, zerbait egin behar baitut bi hauek utz diezaioten elkarri begiratzeari institutuko ikasle ohien bazkarian dauden unibertsitateko lehen ikasturteko bi ikasle izango balira bezala. Zenbat iraungo du honek? Eta zergatik ez naiz lehenago konturatu? Azken bolada honetan nire pentsamenduetan zertxobait bilduta egon banaiz ere, itsu egon behar izan dut bi hauen artean dagoen tentsioaz ez jabetzeko.

Ilea motots batean bildu dut, bi gauza hauetan jarri nahi baitut arreta osoa: batetik, zeinen zorigaiztokoa naizen une honetan, eta, bestetik, *are zorigaiztokoagoa* izango naizela uda osoan, Mel eta Seth desagertzen baldin badira esku emanik elkar laztantzeko. Ondo merezita daukat, azken bi urteotan ez baititut batere zaindu.

Bat-batean, Sethek utzi egin dio Meli finko begiratzeari, eta kalearen beste aldean jarri du arreta osoa. Begiak zabal-zabal ditu. –Veda, ez al da hori...?

—Zer? –Eguzkiaren eraginez begiak itxi ditut.

—E... ezer ez. Ez din axola. –Sethek geratzen zaion txurro zatia ahozapi batean bildu eta alde batera utzi du—. Musika banda entzutea iruditu zaidan.

—Zer ari haiz esaten? Nik ez diat ezer entzuten, bada –ahotsa apaldu zait Sethek zer edo, hobe esanda, *nor* ikusi duen konturatu naizenean—. Ai ama. Alde egin behar dugu. –Zutik jarri naiz, kostata.

—Ez! —Melek besotik heldu dit eta eserarazi nau—. Ezta pentsatu ere!
Orain toki ona harrapatu dugula...

Burua biratu dut eta eskuaz aurpegia estali dut. Sethek kopeta ilundu du. Haren begi berdeak begira ditut orain. Ihesbiderik gabe sentitu naiz, turista txurro jale liluratu mordo batez inguratuta. —Mesedez. Goazen hemendik.

—Mark dun —azaldu dio Sethek Meli—. Hantxe zagon eserita.

Mel kikildu da eta aurreraka okertu da, jendetzari begira jarriz.

—Ez begiratu! —Burua are gehiago makurtu dut, baina, orduan ere, begiratu bat eman diot kalearen beste aldeari. Begiak joan egin zaizkit hain ondo ezagutzen dudan beisboleko bisera urdin kolorgera. Mark, haren gurasoak eta haren bi anaia gazteak han daude kanpatuta, etzaulkietan lasai botata. Oinetara, gurpildun hozkailu handi bat dute, ziur aski, hain ezagunak diren haren amaren sandwichez beteta egongo dena. Tripak airean jarri zaizkit. Duela urtebete, haien atzetik ibili nintzen desfile hau berau ikusteko. Gogoan dut Markek patata frijituak jateko eskaini zizkidala Butterfield-eko alkatea gure aurretik pasa zenean gaina irekita zuen kabriolet batean. Oroitzapenak hain gertu ditut, non eskuez ere ukitu baititzaket, eta ikaratu egin naiz gogora etorri zaidanean nola zabaldu zituen Markek begiak haren hatz puntetako gatza eztiki miazkatu nuenean.

—Ei —esan dit Melek, eta eskutik heldu dit, bere hatzak nireen tartean sartuz, halako moduz non zilarrezko haren eraztunen epela azalean sentitu dudana—. Doala pikutara Mark. Berak galtzen din, ados?

—Bai. —Bat egin dut harekin automatikoki, baina horrek ez du esan nahi hurrengo ordubetean haren aurrean eserita egon naitekeenik nolabaiteko porrot publikoa sentitu gabe.

Begiak itxi ditut. Hamar egun igaro dira Markek esan zidanetik ez duela *loturarik* nahi unibertsitatean hasteko; inor ez dela institutuko neska lagunarekin egoten betiko.

Inor ez dela institutuko neska lagunarekin egoten. Ematen du egiaz horrela izan behar duela. Azken batean, zer da, bada institutua? Bada, mendi lasterketetan ibiltzea, eskola bat eta bestearen artean hiru minutuko atsedenaldiak egitea, eta gauerdian Mountain Dew edari energetikoa edatea esna iraun ahal izateko pre-kalkuluko etxeko lanak bukatu arte. Horixe besterik ez. Institutua ez da garrantzitsua. Eta institutuko neska laguna, ziur aski, ere ez.

Tamalez, institutuko nire mutil laguna oso garrantzitsua zen niretzat.

Begiak ireki ditut. Gaur ez naiz gauza Marki begiratzeko, inola ere ez. Ezkutuan egon besterik ez dut nahi; desfilea ikusten ari naizen itxurak egin, eta, hura amaitu bezain laster, ospa.

—O-ooo —esan du Sethek.

Marken amak honantz seinatu du eta zerbait esaten ari zaio belarrira Marki. Azken horrek, beisboleko biseraren hegala okertu du, esku batez, eta besteaz agur egin digu.

—Malapartatua. —Burua jaitsi dut eta espaloiko koskara begira jarri naiz. Gozoki bilgarriz eta txartelez beteta dago, udako jaialdietako hondar unibertsalez.

—Bazatorren —ohartarazi du Melek, nire eskua estutuz—. Harekin hitz egin beharko dun. Hasi atzera kontua egiten: hiru... bi...

—Kaixo, Vee.

Arnasa sakon hartu dut eta munduan gustukoen dudan aurpegiari begiratu diot. —Kaixo, Mark.

Parean jarri zaigu, eguzkia estaliz. Eskumuturrean lotuta darama otsailean bere hemezortzigarren urtebetetzerako oparitu nion larruzko eskumuturrekoa. Zergatik darama oraindik?

—Zer moduz? —Mark lasai-lasai dago, hatz potoloak praktetan kaketuta dituela, gerrikoari eusteko dauden lokarrietan. Lagunak izango bagina

bezala hitz egin dit, baina, egiazki, lagunak baino askoz gehiago eta, aldi berean, lagunak baino askoz *gutxiago* gara orain.

—Ondo.

Melek eskua askatu dit, Sethen aldera okertu da eta zerbait xuxurlatu dio belarrira. Berdin zaie Mark bertan egotea haien aurre-aurrean.

—Amak bere partez agurtzeko eskatu zidan. Kyle-k eta Oliver-ek jakin nahi ditene ea zergatik ez den Jeffrey etorri gaur.

Eskua altxatu dut Marken ama agurtzeko, eta hark agur gogotsua egin dit bueltan, bi eskuak airean dantzatuz. Atsekabeak jo nau berriz ere, jakin baitakit ez naizela Marken etxera itzuliko asteburuan sutondoan egotera, edo mahai teniseko txapelketetan parte hartzera. —Aitaren asteburua denez, amak harenera eraman zuen Jeffrey atzo gauean.

Markek baiezkoa egin du buruaz. —Zer pena. Ez al zuen hire aitak Duna Egunetara etorri nahi?

Sorbaldak altxatu ditut. —Tira, nire amaordeak ez ditik jende pilaketak sobera gustuko.

Markek behera begiratu du, eta jolasean hasi da eskumuturrekoarekin. Orduan, jendetzaren artetik datozen danbor errepika leunak entzuten hasi gara, desfilea hastera doan seinale.

—Beraz... ondo al hago, Vee? —galdetu dit Markek, Meli deseroso begiratu—. Dena ondo?

Ia-ia barre egin dut. Hain gustuko du Markek ni zaintzea, baita orain batera ez gaudela ere. Gorroto zituen liskarrak. Noizbait horrelakorik izaten bagenuen, ezin ninduen etxean utzi eta bere etxera joan harik eta gure artean dena ondo zegoela sentitzen zuen arte. Duela hamar egun haren aldetik negar batean alde egin nuenean ere, ni kontsolatzera etorri zen. Haren hatzak bero-bero sumatu nituen besoan, burdin gorria balira bezala. —Benetan —esan dut, ahots urratuaz—. Ondo nagok.

—Primeran. Pozten naun. –Badirudi zerbait gehiago esan nahi duela, baina musika banda gero eta gertuago entzuten da–. Beno, esertzera joan beharko dinat –esan du–. Gero arte. Lanean ikusiko gaitun, ezta?

—Utzi nian –esan diot, baina ez dit entzun, buelta eman eta lasterka txikian gurutzatu baitu kalea etzaulkian lasai botatzeko. Nabari da erabat urduritu dela ni hemen ikustean. Harrituta nago inork ez diolako ezer esan. Butterfield Big 6 zinema aretoan lanpostua hartu nuen, bakar-bakarrik, Markekin zinema areto hutsetan egon ahal izateko, elkarri krispetak jaten ematen eta musukatzen, ordua 8.25 \$ ordainduta. Orain, ordea, uste dut ez nintzatekeela gai izango areto horretan ezta film bat ikusteko ere, eta, are gutxiago, Markekin batera lan egiteko, non eta maite ninduela lehenengoz esan zidan eraikinean.

—Babo alaena –esan du Sethek, gure inguruko zenbaitek guri begira geratzeko nahikoa ozen. Ez da Sethek hitz hori erabiltzen duen lehen aldia Mark deskribatzeko, baina bai da harekin hein batean ados nagoen lehen aldia.

—Ondo eginda, Vee. –Melindak bostekoa luzatu dit eta aurreraka makurtu da, betaurreko beltz lodiak sudurrean gora kokatzen dituen bitartean–. Itzel egon haiz. Ez dun gaizki egon, harremana hautsi ondoko lehen aurrez aurrekoa izateko, ez ala?

—Ez –erantzun diot, gure aurretik igarotzen ari den Cheeky Cherry Basket taldearen karrozak Mark ikustea galarazten didan bitartean. Melek besoa jarri dit sorbalden gainean, burua nirearen kontra jarri du istant batez, eta ia-ia nire gezur propioa sinetsi dut–. Ez dun hain gaizki egon.



Ellman's Music musika eskolara doa Seth, pianoko eskola bat eman behar baitu gaur arratsaldean, eta Mel eta biok autora goaz oinez, txintik esan gabe.

—Gorroto ditinat desfileak –esan du Melek, haren Buick auto zaharreen kale nagusian barrena poliki goazen bitartean. Udan ezinezkoa da autoz inora joatea Butterfielden, etengabea baita Chicagotik Michiganera asteburu pasa ihesi doazenen hondartzarako trafikoa, eta, horrez gain, bost jaialdi daude Memoriaren Egunaren eta Lanaren Egunaren artean.

—Bazakinat. –Begiak itxi ditut eta eserlekua atzeraka bota dut, ia erabat etzanda geratu naizen arte–. Zergatik etorri haiz?

Sorbaldak altxatu ditu. –Sethek etorri nahi zuelako.

Gogora etorri zait nola ari zitzaion Seth begira lehen, eta eutsi egin behar izan diot gogoari, ez baitiot Meli gogorarazi nahi nik aurkeztu nituela eta horregatik, ez beste ezergatik, ezagutzen dutela elkar berak eta Sethek. Bihotza apurtuta izango dut, baina ez naiz astakumea.

Melek eta biok ez genuen denbora asko behar izan elkarren lagun egiteko, New York hiritik Michiganeko gure herri txiki honetara bizitzera etorri zenean. Bigarren Hezkuntzako lehen ikasmilako lehen eskola eguneko matematikako eskolan agertu zenean, bere eskumuturreko handiekin eta irribarre deseroso horrekin, beste guztiek pentsatu zuten neska bitxia zela. Nik, ordea, ordura arte inoiz ikusitako pertsonarik apartena zela pentsatu nuen. Ez zuen luze jo nire etxera etortzen hasi zenerako; eta orduan aurkeztu nion Seth, kalearen beste aldean bizi baita, eta nire makulua izan baitzen gurasoak banandu zirenean.

Horrelaxe eman genituen gure lehen urratsak, zein baino zein urduriago, baina hirurok elkarrekin, Butterfieldeko institutuan. DBHko 2. maila ere gainditu genuen. Hirugarren mailan, ordea, Markekin hasi nintzen, eta, hortaz, azken bi urteotako zatirik handiena pasa dut Sethi eta Meli kasurik egin gabe, Markekin eta mendi lasterketetako taldeko haren adiskideekin egoteko. Ezin dezaket zenbatu lagunarteko zenbat broma, Instagrameko zenbat argazki, ikasle ohien zenbat afari eta nire

lagunekin filmak ikusteko zenbat gau galdu nituen Markekin lanpetuegia egoteagatik. Pentsatzen dut ez nintzela konturatu ere egin zenbateraino bihurtu ziren elkarren gertuko hauek bi, baina ez litzateke bidezkoa ni haien arteko loturagatik minduta sentitzea orain.

Melek irratia piztu du eta ahapetik kantatzen hasi da gitarra doinuen gainean. Nik, bitartean, eskua poltsikoan sartu dut eta bertan dagoena haztatu dut larruzko nire eskumuturrekoaren bila, Markek harrigarriki zeraman eskumuturreko haren bikiaren bila. Hingatuta dago, ia urte batez erabili ondoren. Markek utzi ninduen egunera arte, ez nuen inoiz kendu, ezta dutxan sartu edo igerian egin behar baldin banuen ere. Orain ezkutuan dut, baina beti aldean, tolestuta poltsikoaren edo poltsaren barruan. Melek jakingo balu, akabatuko ninduke.

Malkoak masailetan behera isurtzen hasi zaizkidanean, besoa altxatu dut begiak ezkutatzeko, baina Mel berehala konturatu da berriz ere hondoa jo dudala.

—Hara –esan du, eta, musika kendu. Ondoren, eskua belaunaren gainean jarri dit-. Ondo al hago?

Ezekkoa egin dut buruaz. Ez nago ondo. Ez nago ondo Markek utzi egin ninduelako institutuko diploma jaso eta zortzi minutu eskas igaro ondoren. Ez nago ondo sentitzen dudalako, biziki sentitu ere, nire bizitza bat-batean bere bidetik atera dela eta suntsitzailea izan daitekeen bideari ekin diola. Eta, okerreana dena (nire aldetik erabat bidegabea baita, izan) ez nago ondo gerta baitaiteke Sethek Mel maitatzea ni maite nauena baino gehiago.

—Vee, gora bihotza. Ez geninan desfilera joan behar. Jakin behar geninan Mark han egongo zela.

Begiak igurtzi ditut eta tua irentsi dut, goiari eusteko ahaleaginean.
—Tentel hutsa sentitzen naun.